

DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAUK HONAKO LAN POLTSA SORTZEKO DEIALDIA ETA HAUTAKETA PROZESUA ARAUTZEN DITUZTEN BALDINTZA OROKORRAK:

MEKANIKARI-ELEKTRIKARI BALIOANIZTUNA

LEHENENGOA.- DEIALDIAREN XEDEA.

Deialdi honen xedea Donostiako Tranbia Konpainia, SAUko (aurrerantzean DTK) Mekanikari-Elektirikari balioaniztuna Lan Poltsa sortzea da.

Hasiera batean, DTKren hitzarmen kolektiboaren 9,5 mailari dagokiona izango da ordainsaria. Lanaldia urtero ezarritakoa izango da, eta tailerren zerbitzurako (egunez edo gauez), eta, hala badagokio, guardietarako onartutako egutegiaren eta ordutegiaren arabera egingo da.

Osatutako lan poltsa langile behar ez iraunkorrak, premiazkoak eta geroraezinak betetzeko erabiliko da, baldin eta salbuespenezko kasuak badira, eta behin-behineko kontratuak eginda betiere.

BIGARRENA.- HAUTAGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK.

Deialdi honetan onartua izateko eta, hala badagokio, Hautaketa Prozesuan parte hartu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte hautagaiek:

Baztertzailak:

- Espainian legezko bizilekua eta lan baimena izatea.
- Postuari dagozkion lanak egiteko gaitasun funtzionala izatea.
- Lanpostuaren berezko egitekoak behar bezala betetzea eragotziko lukeen gaixotasun edo akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea.
- Zigor espediente bidez Herri Administrazioiko Zerbitzutik baztertua ez egotea.

- **Lanbide Heziketako titulua eskatuko da, Teknikari Espezialista, Goi mailako titulua edo baliokidea, honako arlo hauetako batean: "Elektrizitatea eta elektronika", "Garraioa eta Ibilgailuen mantentzea", "Instalazioa eta mantentze lanak" edo "Fabrikazio mekanikoa".**

- **Mekanikari-Elektrikari gisa egiaztatutako esperientzia profesionala:**
 - o 3 urte ibilgailu industrialetan, autobusetan edo kamioetan, edo,
 - o 5 urte turismoetan edo,
 - o 10 urte beste garraiobide batzuetan, hala nola hegazkinetan, itsasontzietan, trenetan.

Hautaketa Batzordeari dagokio gaitzen duen lanbide esperientzia baloratzea, haren nolakotasunaren eta lanposturako egokitasunaren arabera.

Ez baztertzaileak:

- "D" motako Gidabaimena izatea (baldintza hori laneratze datarako eskatuko da).
- Gaitasun Profesionalaren Ziurtagiria (GPZ) izatea (baldintza hori laneratze datarako eskatuko da).

Bestelako baldintzak:

- Alderdi mekanikoari buruzko ezagutza sendoak (motorra, aldaketa automatikoak, multzoak, esekidura eta pneumatika) eta elektrizitateari-elektronikari buruzko ezagutza sendoak (eskema elektrikoak interpretatzea eta aplikatzea).
- Taldean lan egiteko gaitasuna.

HIRUGARRENA.- ONARTUA IZATEKO ESKUBIDEAK ORDAINTZEA.

Deialdian onartzeko eskubideak 20 euro dira.

Eskubide horiek ordaintzeko, Donostiako Tranbia Konpainia S.A.U.k KUTXABANKen duen kontuan ordainduko da zenbateko hori, honako zenbaki honetan:

ES81 2095 0611 0310 6329 4275

Eskubideen ordainketaren egiaztagirian hautagaiaren NANren zenbakia, izena eta deiturak agertu beharko dira.

Ordainketaren egiaztagirian datu horiek behar bezala agertzen ez badira, ordainketa egin gabe dagoela ulertuko da.

Ezin izango da onartzeko eskubideengatik ordaindutakoa itzultzeko eskatu Deialdiko Hautaketa Prozesuaren fase bakar batean ere, eta gainera diru hori ez da inolaz ere itzuliko.

LAUGARRENA.- ONARTUAK IZATEKO ESKAERAK AURKEZTEA.

Eskaerak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, Deialdiaren iragarkia prentsan argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera kontatuta, eta zehatz esateko, 2023ko urriaren 23tik azaroaren 6a arte (biak barne).

Parte hartzeko eskabideak aurkezteko tokia edo bitartekoak:

- **Posta elektronikoaren bidez**, helbide honetara: dbus@oteic.com
- **Aurrez aurre helbide honetan**: OTEIC taldea, Zuatzu enpresa-parkea, Igeldo eraikina, 1. solairua - 20018 Donostia-San Sebastián. Aurrez aurreko aurkezpenerako ordutegia 9: 00etatik 18: 00etara da, astelehenetik ostiralera.
- **Posta bulegoetan, honako helbide honetara bidalitako ziurtagiriaren bidez**: Grupo OTEIC, Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo eraikina, 1. solairua - 20018 Donostia-San Sebastián.

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) **Onartua izateko eskaera-orria eta Esperientzia baloratzeko orria** behar bezala beteak (inprimakiak eskuragarri daude I eta II Eranskin gisa).
- b) **Deialdian onartua izateko eskubideak ordaindu direla egiaztatzen duen agiria**, behar bezala identifikatua, hirugarren oinarrian adierazten den bezala.
- c) **Bigarren oinarrian eskatutako titulazioaren kopia.**
- d) **Gizarte Segurantzak emandako egiaztagiria (lan-bizitza) eta/edo enpresa-ziurtagiriak, bigarren oinarrian eskatutako esperientzia egiaztatzen dutenak.**
- e) **Hala badagokio, "D" motako Gidabaimenaren kopia.**
- f) **Hala badagokio, Gidatzeko Gaitasun Profesionalaren Ziurtagiriaren (GGA) kopia.**
- g) **Hala badagokio, Euskarako titulu ofizialaren kopia.**

Eskatutako agiri horien bidez behar bezala egiaztatu ez diren hautagaitzak Deialditik kanpo utzi ahal izango dira Hautaketa Batzordeak hala erabakitzen badu.

Adierazitako epean eta moduan aurkeztutako hautagaitzak bakarrik onartuko dira, eta baztertu egingo dira baldintza horiek betetzen ez dituzten guztiak.

BOSGARRENA.- HAUTAGAIK ONARTZEA.

Onartuak izateko eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Hautaketa Prozesuan onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda argitaratuko da www.dbus.eus web orrian eta Donostiako Tranbia Konpainiako bulegoetan, kanpoan gelditu direnak zergatik baztertu diren azalduta. Zerrenda hori hiru bat eguneko epean argitaratuko da, onartuak izateko eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera kontatuta.

Baztertuta gelditu diren hautagaiek egokitzat hartzen dituzten erreklamazioak edo okerren zuzenketak egin ahal izango dituzte, eta horretarako 3 egun izango dituzte, zerrenda argitaratzen den egunetik aurrera kontatuta, egun hori barne. Erreklamazioak edo okerren zuzenketa zerrendan azaltzen den moduan egingo dira.

Hautaketa Batzordeak ebatziko ditu alegazioak, eta behin ebatzita, Hautaketa Prozesuan onartutako hautagaien behin betiko zerrenda argitaratuko du www.dbus.eus web orrian eta Donostiako Tranbia Konpainiako bulegoetan, bi bat eguneko epean, alegazioak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera kontatuta.

Onartu gabe jarraitzen duten hautagaiek ez dute Deialdian eta Hautaketa Prozesuan jarraitzeko aukerarik izango.

SEIGARRENA.- MEKANIKARI-ELEKTRIKARI BALIOANIZTUNAREN HAUTAKETA PROZESUA.

Hautaketa-prozesua hainbat kanporatze-fasetan egingo da: proba profesionalak (teorikoak eta praktikoak), proba psikoteknikoak eta aptitudinalak, elkarrizketa eta analisi pertsonala eta merezimenduen balorazioa.

Hautaketa Batzordeak probak egiteko ordena erabaki dezake. Era berean, egun berean hainbat fase eta proba egin behar diren zehazteko aukera izango du.

Lau fase horietan zehar gehienez 100 puntu lortu ahal izango dira. Honako hauek dira 100 puntu horien balorazioa eta fase bakoitzean lor daitezkeen gehieneko eta gutxieneko puntuazioak:

FASEA	Lor daitekeen gehieneko puntuazioa	Eskatzen den gutxieneko puntuazioa
1. PROBA PROFESIONALA 1.1. Proba Profesional Teorikoa 1.2. Proba Profesional Praktikoa Gutzizko partziala 1...	 20 30 50	 12 21 33
2. PROBA PSIKOTEKNIKOAK ETA GAITASUN PROBAK Gutzizko partziala 2 ...	 15	 9
3. ELKARRIZKETA ETA ANALISI PERTSONALA Gutzizko partziala 3...	 20	 12
4. MEREZIMENDUEN BALORAZIOA 4.1. Euskaraz jakitea 4.2. Lan esperientzia Gutzizko partziala 4...	 5 10 15	 -- -- ---
 GUZTIRA ...	 100	 54

1. FASEA: PROBA PROFESIONALA:

1.1. **Proba Profesional Teorikoa:** Proba teorikoa izango da, eta haren bidez mekanikako (motorra, aldaketa automatikoak, multzoak, esekidura eta pneumatika) eta automobilgintzako elektrizitateko (eskema elektrikoaren interpretazioa eta aplikazioa) ezagutzak ebaluatuko dira. Horretarako, hainbat ariketa mota planteatu ahal izango dira, test motakoak, problemak eta garatzeko galderak.

Proba hau gainditzeko, gutxienez 12 puntu lortu beharko dira, proban gehienez lortu ahal izango diren 20 puntuak oinarri hartuta. Gutxieneko puntuazio hori edo puntuazio handiagoa lortzen duten hautagaiak Hautaketa Prozesuko hurrengo fasera pasa ahal izango dira.

1.2. **Proba Profesional Praktikoa.** Tailerreko proba praktikoa bat edo gehiago egin beharko dira, gaitasun profesionalak eta arazo tekniko bati aurre egiteko trebetasunak ebaluatzeko. Proba egiten den bitartean, hautagaiak gauza izan beharko du arazoa diagnostikatzeko eta matxuraren norainokoa identifikatzeko

eta une oro arrazoitu beharko ditu arazoa konpontzeko prozesua eta praktikan konpontzeko prozesua.

Proba gainditzeko gutxienez 21 puntu lortu behar dira, 30 puntutik, mekanikari-elektrikari balioaniztunaren lan poltsarako hautagai izaten jarraitzeko.

Horrenbestez, 1. Fasean (Proba profesionala), lortu beharreko gutxieneko puntuazioa 33 puntu dira guztira ebaluatutako 50 puntuetatik.

2. FASEA: PROBA PSIKOTEKNIKOAK ETA GAITASUN PROBAK

Hainbat proba psikotekniko eta gaitasun proba egingo dira, hautagaien lanposturako behar diren gaitasunak eta trebetasunak dituzten ala ez ikusteko.

Fase honetan gutxienez 9 puntu lortu beharko dira, proban gehienez lortu ahal izango diren 15 puntuak oinarri hartuta.

3. FASEA: ELKARRIZKETA ETA ANALISI PERTSONALA

Hautagaiei elkarrizketa egingo zaie banan-banan, eta horrez gain banaka edota taldeka beste proba batzuk ere egingo zaizkie, haien ezaugarri pertsonalak eta gaitasunak bete nahi duten lanpostuaren ezaugarriekin bat datozen ala ez jakiteko.

Fase honetan gutxienez 12 puntu lortu beharko dira, proban gehienez lortu ahal izango diren 20 puntuak oinarri hartuta.

4. FASEA: MEREZIMENDUEN BALORAZIOA

Hautaketa Batzordeak baloratu beharreko baldintzak aurkezteko epeak ezarriko ditu hautaketa prozesuan zehar. Honela egiaztatuko dira:

- **Euskararen ezagutza:** ezagutza egiaztatzeko, proba idatzia egingo dute hautaketa prozesuan zehar. Proba hori ez dute egin beharrik izango eta, gainera, baldintza honetarako ezarritako gehieneko puntuazioa lortuko dute eskabideak aurkezteko azken egunean euskararen gutxienez B1 ezagutza maila edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoaren arabera B1 maila horren pareko ezagutza maila egiaztatuta dutenek. Egiaztatutako euskara mailan oinarrituta, hauxe izango da puntuazioa:

Euskara maila	Puntuazioa
B1	5
A2	3
A1	1

Onarpen Eskaeran adierazi duten hautagaiak baino ezingo dute proba egin.

- **Lan esperientzia:** Gizarte Segurantzak egindako egiaztagiriekin edo/eta enpresa ziurtagiriekin egiaztatuko da, eta honako irizpide hauen arabera baloratuko da:
 - 3 puntu autobusen eta kamioien Mekanikari-Elektrikari gisa lan egindako urte bakoitzeko (edo urte zati bakoitzeko).
 - 2 puntu turismoen Mekanikari-Elektrikari gisa lan egindako urte bakoitzeko (edo urte zati bakoitzeko).
 - 1 puntu beste garraiobide batzuen Mekanikari-eElektrikari gisa lan egindako urte bakoitzeko (edo urte zati bakoitzeko).

Fase honetan gehienez ere 15 puntu lor daitezke (euskaraz jakitea, gehienez 5 puntu eta lan esperientzia, gehienez 10 puntu).

Deialdia gainditzeko gutxieneko puntuazioa 54 puntu dira, mekanikari-elektrikari balioaniztunaren lan poltsan sartzeko ebaluatu diren 100 puntuetatik.

Hautagaiei deialdi bakarra egingo zaie fase bakoitzerako. Hautaketa Batzordeak deitutako probara adierazitako lekuan, egunean eta orduan agertzen ez diren hautagaiak Hautaketa Prozesutik kanpo geldituko dira behin betiko.

Probak egiteko deitutako hautagaiak jatorrizko NAN, pasaportearen edo gidabaimena erakutsi beharko dute. Dokumentu horietako bat ez badute aurkezten, ezin izango dituzte probak egin.

Aukera berdintasuna (gizonena nahiz emakumeena) bermatuko da prozesu honetan.

ZAZPIGARRENA.- INFORMAZIOA ETA JAKINARAZPENAK.

Hautaketa Prozesuaren garapenarekin loturik sortzen den informazio guztia jakinarazteko, ondoko bide ofizial hauetan argitaratuko da:

- Web orrian: <https://www.dbus.eus/beste-zerbitzu-batzuk/pertsonalaren-aukeraketa/>
- Donostiako Tranbia Konpainiaren iragarki taulan (Fernando Sasiain 7, Donostia)

Lehen argitalpenaren aurretik interesaturik dauden pertsona bakoitzari jakinaraziko zaio bere eskaerari izendatutako eta hautaketa-prozesuaren garapenean behar diren argitalpenetan identifikatuko dion kodea. Jakinarazpena onartua izateko eskaera orrian adierazitako posta elektronikoko bidez egingo da.

Egin beharreko komunikazio eta jakinarazpen pertsonaletarako (hala nola esleitutako identifikazio pertsonalaren kodea jakinarazteko), lehentasunezkoztat joko da onarpen-eskaeran adierazitako helbide elektronikoa, salbu eta ondoren hautagaiak berariaz eta modu frogagarrian beste helbide bat jakinarazten badio deialdia egin duen organoari.

ZORTZIGARRENA.- ALEGAZIOAK.

Alegazioak edo/eta akatsen zuzenketak Hautaketa Batzordeari zuzendu behar zaizkio une bakoitzean adieraziko den epean eta moduan.

Erreklamazioak egiteko epeak bukatutakoan, hartutako akordioak behin betiko bilakatuko dira, eta geroago ezin izango da haien edukia inpugnatu.

BEDERATZIGARRENA.- HAUTAKETA BATZORDEA.

Hautaketa Batzordearen osaera Administrazio Kontseiluak finkatutakoa izango da.

Hautaketa Prozesua objektiboa izan dadin zainduko du Hautaketa Batzordeak. Era berean, ahalmena izango du hautaketa prozesuan sortzen diren zalantzak argitzeko eta Deialdia arau hauen arabera ondo joan dadila bermatzeko beharreko erabakiak hartzeko, eta oinarri hauetan aurreikusita ez dauden kasuetan erabili behar diren irizpideak ezarriko ditu.

Hautaketa Batzordeak egiaztatu ahal izango du hautagaiak Hautaketa Prozesuan zehar aurkeztutako dokumentazioa eta emandako informazioa egiazkoa dela, eta automatikoki deialditik kanpo utzi ahal izango ditu informazio faltsua aurkeztu duten hautagaiak.

Hautaketa Batzordeak aholkulari adituak izan ditzake egokitzat hartzen dituen probak aurrera eramateko.

HAMARGARRENA.- LANEAN HASTEAK. LAN POLTSAK OSATZEA ETA KUDEATZEA.

Hautaketa Prozesua amaitutakoan, Hautaketa Batzordeak www.dbus.eus webgunean eta Donostiako Tranbia Konpainiaren iragarki taulan argitaratuko du Lan Poltsan onar daitezkeen hautagaien zerrenda.

Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa hautaketa-prozesuko fase eta merezimenduen balorazio bakoitzean lortutako kalifikazio partzialen baturak osatuko du, eta horrek zehaztuko du lan-poltsaren lehentasun-ordena.

Puntuazioa berdina bada, lanpostuan ordezkari txikiena duen sexuak izango du lehentasuna. Berdinketak jarraitzen bada, euskara-maila handiena egiaztatuta duen hautagaiak izango du lehentasuna, hala badagokio.

Lan poltsan sartutako hautagaietako bati dagokion lanpostuan hasteko deia egiten zaionean, osasun azterketa egin beharko zaio, lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzea galaraziko dion gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzeko, bigarren oinarrian adierazi bezala. Lanpostuan hasi behar duen pertsona bakoitzari proba hauek egingo zaizkio, besteak beste: odol eta gertu analisiak, bihotz-biriketako miaketa (EKG), sabelaldeko miaketa, bizkarrezurraren azterketa, miaketa neurologikoa, ikusmenaren kontrola, entzumen azterketa eta anamnesia.

Hala ere, DTKk bere esku du beste proba gehigarri batzuk eskatzeko edo egiteko aukera.

Lan poltsan sartutako hautagai batek proba horiek gainditzen ez baditu eta lan poltsaren xede den lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzea eragozten duen edozein kasu gertatzen bada, lan poltsatik kanpo geratuko da.

Mekanikari-Elektrikari lan poltsan dauden hautagaiak **lanpostu hori betetzeko eskubidea izango dute langile behar ez iraunkorrak, premiazkoak eta gerora ezin daudenean, baldin eta salbuespenezko kasuak badira, eta betiere aldi baterako kontratuak egingo dira.**

Hautagai batek lehenengo lan eskaintzari uko eginez gero, beste 2 aldiz deitu ahal izango diote. Beraz, hirugarren deiarri uko egiten badio, lan poltsatik kanpo geldituko da.

Lan poltsa bi urterako izango da, behin betiko zerrendak argitaratzen diren egunetik aurrera kontatuta.

Hala ere, arrazoi operatiboengatik, gehienez beste bi urtez luza liteke lan poltsaren iraupena.

Nolanahi ere, lan poltsa berria osatzen denean, hau indargabetuta geldituko da. Hauxe da, lan poltsa hau ordezkatzeko DTKK hautaketa prozesu berria deitzen duenean, hautaketa prozesu berrian izena eman beharko dute oraingo lan poltsan dauden pertsonak.

Osatutako Lan Poltsan egoteagatik Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.U.n lanean hasten diren pertsonak 2 hilabeteko probaldia izango dute. Probaldiak irauten duen bitartean, langileak nahiz Enpresak probaldia bertan behera uzteko edo ez berritzeko erabakia hartu ahal izango dute aldez aurretik jakinarazi gabe, eta aldeetako bakar batek ere ez du horregatik kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izango, lan egindako egunengatik dagokion ordainsaria besterik ez du jasoko langileak. Denbora horretan zehar enpresak langileen ebaluazio jarraitua egingo du. Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.U.k une bakoitzean indarrean dituen arauak beteko dituzte pertsonak, kontratazioaren eta lanaren balorazioaren alorretan, besteak beste, kasu bakoitzean edozein izanda ere kontratazio modalitatea.

HAMAIKAGARRENA.- DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.

Hautagaiak beren eskabideetan emandako datu pertsonalak eta oinarri hauetan araututako prozesuan Donostiako Tranbia Konpainia, SAUri ematen dizkietenak erakunde horrek tratatuko ditu tratamenduaren arduradun gisa, prozesu horretan euren parte hartzea kudeatzeko eta, hala badagokio, oinarri hauen xede den lan-poltsan sartzea.

Datu pertsonalen tratamenduaren oinarria izangaiak egindako enplegu-eskaera da, hautaketa-prozesuan duen parte-hartzea kudeatzeko.

Hautaketa-prozesu horretan egiten diren proba medikoetatik ateratzen diren osasun-datuei dagokienez, adierazten da proba horiek prebentzio- edo lan-medikuntzako helburuetarako eta izangaiaren lan-gaitasuna ebaluatzeko erabiliko direla.

Era berean, hautagaitza aurkeztean, izangaiak, hautatua izanez gero, oinarri hauen xede den lan-poltsan sartzeko baimena ematen du, eta baimen hori oinarri hartuta, bere datu pertsonalak tratatzeko baimena ematen du.

Datuak babesteari buruzko araudian ezarritakoa betetzeko, Donostiako Tranbia Konpainia, SAUk Datuak Babesteko ordezkari bat (DBO) du izendatuta. Ordezkari hori arduratzen da erakundearen pribatutasunaren kudeaketaz eta kontrolaz, eta hautagaiak harekin harremanetan jar daitezke helbide elektronikoko honen bidez: dpo@dbus.eus

Donostiako Tranbia Konpainia SAUk hautagaien datu pertsonalak gordeko ditu hautaketa prozesua behar bezala gauzatzeko eta, hala badagokio, lan-poltsan hautatutako izangaien laneratzea eta egonaldia kudeatzeko behar-beharrezkoa den denboran, eta, beharrezkoa denean, erakundeak bere legezko betebeharrak betetzeko bete behar dituen kontserbazio epe gehigarrietan ere.

Deialdi honen xede den hautaketa prozesua publizitatearen printzipioak arautzen du, eta, beraz, zazpigarren oinarrian adierazitako bitartekoan argitaratuko dira onartutako eta baztertutako pertsonen zerrendak, bai eta parte hartzaileek lortutako puntuazioak eta azken emaitzak ere. Identitatea zazpigarren oinarriaren arabera esleitutako identifikazio pertsonaleko kodearen bidez jasoko da.

Oinarri hauetan espresuki aurreikusitako argitalpenez gain, eta legez eska daitekeen kasuetan izan ezik, hautagaien datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko. Datu pertsonalen nazioarteko transferentziak ere ez dira egingo.

Hautagaiak eskubidea izango dute (i) beren datu pertsonaletarako sarbidea eskatzeko, bai eta datu horiek zuzentzeko, ezabatzeko, haien tratamendua mugatzeko, datuok beste norabait eramateko edo, bidezkoa denean, datuon tratamenduari aurka egiteko ere, lopd@dbus.es helbidera zuzendutako idatzizko eskaeraren bidez; eta (ii) erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Agentzian edo beste edozein kontrol agintaritzak eskudunetan, batez ere beren eskubideak erabiltzean gogobeterik gelditu ez direnean.

Donostian, 2023ko urriaren 22an